

Ebazpena, Ogasuneko zuzendari nagusiarena, [REDACTED] jaunak informazio publikoa lortzeko egin duen eskaera onartzen ez duena (SAIP 2021-058).

AURREKARIAK

LEHENA.- 2021eko abenduaren 9an, informazio publikoa eskuratzeko eskaera jaso zen Ogasuneko Zuzendaritza Nagusi honetan. Eskaera hori Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan aurreikusitakoaren babesean egin da. Eskaerari buruzko datuak eta edukia hauek dira:

- Interesduna: [REDACTED]

- Jakinarazpenetarako helbidea: [REDACTED]

- Eskaeraren data: 2021-12-06.

- Erregistro-data: 2021-12-06.

- Eskaeraren edukia: Estolderia-zerbitzua emateagatik tasa kobratzeari buruzko informazioa, udalek higiezinaren katastro-balioaren eta ur-kontsumoaren artean aukeratuta zerbitzu horren zerga-oinarria finkatzeko duten aukerari dagokionez.

ONINARRI JURIDIKOAK

LEHENENGOA.- Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 18. artikuluko aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea dutela, aipatutako foru arauan eta gaiari buruzko legeria orokorrean ezarritako baldintzetan.

BIGARRENA.- Ondorio horietarako, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 17.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, informazio publikotzat hartzen da edozein eduki edo dokumentu mota, erabiltzen den euskarria edozein dela ere, bere aplikazio-eremuan aurreikusitako erakundeen

Resolución del Director General de Hacienda, por la que se inadmite la solicitud de acceso a información pública presentada por D. [REDACTED] (SAIP 2021-058).

ANTECEDENTES

PRIMERO.- Con fecha 9 de diciembre de 2021, se ha recibido en esta Dirección General de Hacienda solicitud de acceso a información pública al amparo de lo previsto en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, cuyos datos y contenido son los siguientes:

-Persona interesada: D. [REDACTED]

-Domicilio a efectos de notificaciones: [REDACTED]

-Fecha de la solicitud: 6-12-2021.

-Fecha de registro: 6-12-2021.

-Contenido de la solicitud: Información relativa al cobro de la tasa por la prestación del servicio de alcantarillado, en lo que respecta a la posibilidad que tienen los Ayuntamientos para fijar la base imponible de la misma eligiendo entre el valor catastral de los inmuebles y el consumo de agua.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

PRIMERO.- El artículo 18 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, reconoce el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, en los términos establecidos en dicha Norma Foral y en la legislación general sobre la materia.

SEGUNDO.- A estos efectos, de conformidad con lo previsto en el artículo 17.2 de la citada Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, se entiende por información pública cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades



esku dagoena, eta erakunde horiek beren eginkizunak betetzean egin, aldatua edo eskuratua izan dena.

Beraz, lehendik dagoen informazioa da, eta eskaera jasotzen duen administrazioaren esku dago, bai informazio hori berak egin duelako, bai esleituta dituen eskumenak erabiliz lortu duelako.

HIRUGARRENA.- Zehatzago esanda, hemen interesatzen zaigunari dagokionez, 1/2016 Foru Arauak, otsailaren 17koak, Bizkaiko Gardentasunari buruzkoak, 22.c) artikuluan adierazten du ezin direla izapidetzeko onartu informazio publikoa eskuratzeko eskaerak, baldin eta horien zabalkundeak aurretiazko ekintza bat edo berregiteko prozesu bat eskatzen badu. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da eskatutako informazioa erantzun bat emateko espresuki sortu edo landu behar denean, hainbat informazio-iturriren bidez, edo informazio hori ateratzeko eta ustiatzeko beharrezko baliabide teknikorik ez dagoenean; izan ere, ez gaude partikularrek eskatuta Administrazioak derrigorrez txostenak egiteko eskubide baten kasuan.

LAUGARRENA.- Horrez gain, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22. artikulua d) idatz-zatiak ezartzen du aukera dagoela informazio publikoa eskuratzeko eskaerak izapidetzeko ez onartzea baldin eta eskatutako informazioa ez duen organo bati zuzentzen bazaizkio eta eskumena zeinena den ez denean ezagutzen.

BOSGARRENA.- Aztergai dugun kasu honetan, [REDACTED] jaunak txostena eskatu du estolderia-zerbitzua emateagatik tasaren zerga-oinarria ezartzeko udalek duten aukerari buruz, hau da, erreferentzia moduan higiezinaren katastro-balioa edo ur-kontsumoa hartuta, adierazi behar da Bizkaiko Foru Ogasunak ez duela informazio hori eta horren berri emateko, aldez aurreko ekintza bat egin beharko litzateke, edo ekoizpen eta elaborazio prozesu bat ad hoc eta, gainera, erakunde honek ez du horretarako eskumenik.

previstas en su ámbito de aplicación, y que haya sido elaborado, modificado o adquirido por ellas en el ejercicio de sus funciones.

Se trata, por lo tanto, de información que ya existe, y que obra en poder de la Administración que recibe la solicitud, bien porque la ha elaborado ella misma, o bien porque la ha obtenido en el ejercicio de las competencias que tiene encomendadas.

TERCERO.- Consecuentemente, en lo que aquí interesa, el artículo 22 c) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, señala que cabe inadmitir a trámite las solicitudes de acceso a información pública cuya divulgación requiera una acción previa o un proceso de reelaboración, entendiéndose que se da esta condición cuando la información solicitada tenga que ser producida o elaborada expresamente para dar una respuesta, mediante el uso de distintas fuentes de información, o cuando se carezca de los medios técnicos necesarios para extraer y explotar dicha información, toda vez que no estamos ante un derecho a la elaboración de informes por parte de la Administración a petición de los particulares.

CUARTO.- Adicionalmente, la letra d) del mismo artículo 22 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, prevé que también cabe inadmitir a trámite las solicitudes de acceso a información pública cuando las mismas sean dirigidas a un órgano que no disponga de la información solicitada y se desconozca cuál es el competente.

QUINTO.- En el presente caso, D. [REDACTED] solicita informe sobre la posibilidad que tienen los Ayuntamientos de fijar la base imponible de la tasa por la prestación del servicio de alcantarillado por referencia al valor catastral de los inmuebles o al consumo de agua, en relación con lo cual, debe indicarse que se trata de una información con la que no cuenta esta Hacienda Foral de Bizkaia, cuya divulgación requeriría de una acción previa, o de un proceso de producción y elaboración "ad hoc", para el que, además, carece de competencia.



Hori guztia, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalei beraiei dagokie ordenantza fiskal bidez, udal-tasen zerga-oinarria finkatzea, eta hori horrela da Foru Arau bereko 21. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, eta Bizkaiko Foru Ogasun honek ez du horiei buruzko txostenik egiteko eskumenik.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan ezarri dena betez eta Zuzendaritza Nagusi honi dagozkion eskumenak baliatuz

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA.- EZ ONARTZEA [REDACTED] [REDACTED] jaunak informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaera [REDACTED]

BIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari JAKINARAZTEA, bai eta Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiari eta gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeari ere.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa jar daiteke Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunari buruzko gaietako Batzordean, ebazpena jaso eta biharamunaz geroko hilabeteko (1) epearen barruan, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24.5 artikuluan xedatzen denaren arabera. Hala ere, aurreko guztia ez da eragozpen izango interesatuak bere eskubideak defendatzeko egoki ikusten duen beste edozein ekintza edo errekurtsio aurkezteko.

Todo ello, en la medida en que, según lo dispuesto en el artículo 15 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, corresponde a los propios Ayuntamientos fijar, mediante ordenanza fiscal, la base imponible de las tasas municipales, conforme a lo establecido en los artículos 21 y siguientes de la misma Norma Foral, sobre los que esta Hacienda Foral de Bizkaia no tiene competencia para emitir informe.

Por todo lo anterior, en cumplimiento de lo previsto en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, y en el ejercicio de las facultades que corresponden a esta Dirección General

RESUELVO

PRIMERO.- INADMITIR la solicitud de acceso a información pública presentada por D. [REDACTED]

SEGUNDO.- NOTIFICAR la presente resolución a la persona interesada, comunicando la misma a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia y a la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia.

TERCERO.- Contra la presente resolución podrá interponerse reclamación ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, en el plazo de un (1) mes, con arreglo a lo establecido en el artículo 24.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, o bien directamente recurso Contencioso-Administrativo en el plazo de dos (2) meses ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en ambos casos a partir del día siguiente a su recepción.